



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urtarrilaren 12a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak zeharkakotasuna hobetzeko eta Kontuen Ganberaren gomendioak betetzeko gauzatuko duen politika orokorrari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, eutanasiari buruzkoa, eutanasia eta suizidio lagundua direla-eta Kongresuak onetsitako erregulazio berria dela eta. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako esku-hartze sozialaren arloko lehenengo akordioaren edukari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (5. or.).
- Galdera, enplegu plan berriari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, pandemiak jaietan izan duen bilakaerari eta urtarrilaren bigarren hamabostaldirako aurreikuspenari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako herritarrei eta enpresei ekarriko dizkien ondorio nagusiei buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako Nafarroako txertatze-estrategiari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (8. or.).
- Galdera, pentsioaren zenbatekoaren kalkulurako kotizazio-epea 25 urtetik 35era igotzeko proposamenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-estrategiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).
- Galdera, elkarlaneko etxebizitzaren proiektuei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako CO2 emisioei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).

- Galdera, kulturgune eta kultur jardueretako COVIDaren aurkako neurrien funtzionamenduari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroari emandako txerto-dosiak masiboki eta berehala txertatzeko operatiboari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen 2019ko eta 2020ko deialdiei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia aurreratzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, pandemia kontrolatzeko neurri berriak hartzeko irizpideei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren lanaldiak eta ordainsariak arautzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren herritarren arreta-mailari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Foru Komunitatean haztegitzarrak instalatzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak kutsatzeak geldiarazteko ezarriko dituen neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Gobernuak 2021erako aurreikustsen dituen negoziazio eta akordioei buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, 2021erako moduluak kentzearekin ados ez daudela dioten autonomoen eskaerei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Euskarabideak D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina aurtan ez egiteko arrazoiei buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (18. or.).
- Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familia-bilerei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordainsariak hobetzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, “Suspertu Plana. Desgaitasuna duten pertsonen zentroen kudeaketa” izeneko 920005 93100 2600 231B05 partidaren zenbatekoa 2021eko aurrekontuetan murrizteko arrazoiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak zeharkakotasuna hobetzeko eta Kontuen Ganberaren gomendioak betetzeko gauzatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak zeharkakotasuna hobetzeko eta Kontuen Ganberaren gomendioak betetzeko gauzatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Interpelazioa, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak zeharkakotasuna hobetzeko eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari buruz Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostenean jasotako gomendioei erantzuteko gauzatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Interpelazioa, eutanasiari buruzkoa, eutanasia eta suizidio lagundua direla-eta Kongresuak onetsitako erregulazio berria dela eta.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, eutanasiari buruzkoa, eutanasia eta suizidio lagundua direla-eta Kongresuak onetsitako erregulazio berria dela eta.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, 10-20/ITP-031 interpelazioa ordeztzen duena, urtarrilaren 14ko Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Nafarroako Gobernuari egindako interpelazioa, eutanasiari buruzkoa, eutanasia eta suizidio lagundua direla-eta Kongresuak onetsitako erregulazio berria dela eta.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako esku-hartze sozialaren arloko lehenengo akordioaren edukiari buruzkoa.*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako esku-hartze sozialaren arloko lehenengo akordioaren edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira gure komunitateko esku-hartze sozialaren arloko lehenengo akordioaren eduki nagusiak?

Iruñean, 2020ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa.*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin ondoren Nafarroan egonen dela Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionala:

Zein izanen dira horren helburuak, balizko kokalekua eta finantzaketa?

Iruñean, 2020ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, enplegu plan berriari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea enplegu plan berriari aurkeztutako galdera, Ramón Alzórriz Goñi jaunak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den abenduaren 30ean Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluak eginiko bileraren ondoren, Nafarroako Gobernuak nola heldu dio datorren enplegu planerako lanari?

Iruñean, 2020ko abenduaren 31n

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, pandemiak jaietan izan duen bilakaerari eta urtarrilaren bigarren hamabostaldirako aurreikuspenari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, pandemiak jaietan izan duen bilakaerari eta urtarrilaren bigarren hamabostaldirako aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gabon jaietara hasiera eman dien astean, kutsatze-kopuruak gora egin du pixkanaka. Hori dela eta, abenduaren 26an murrizketak areagotu ziren.

Jaiak amaitu eta egun batzuetara, honako galdera hau egiten diogu Osasuneko kontseilariari:

Zer balorazio egiten duzu jaietako epidemiaren bilakaerari buruz, eta zer aurreikuspen egiten duzu urtarrilaren bigarren hamabostaldirako?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, Brexitak Nafarroako herritarrei eta enpresei ekarriko dizkien ondorio nagusiei buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, Brexitak Nafarroako herritarrei eta enpresei ekarriko dizkien ondorio nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko harremanak arautzen dituen itun berria, Brexita gauzatu ondoren. Egiaztatzeko dauden xehetasunen zain gaudela, eta bi aldeek formalki berretsi arte (Europar Batasunaren kasuan, Europako Parlamentuak onetsiz), Nafarroako herritarrek eta gure enpresa askok zalantza ugari dituzte haien inplikazio zehatzak direla eta.

Hori guztia dela eta, honako hau galdetzen diogu Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari:

Zein dira Brexitak Nafarroako herritarrei eta enpresei ekarriko dizkien ondorio nagusiak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, COVID-19aren aurkako Nafarroako txertatze-estrategiari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren aurkako Nafarroako txertatze-estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak urtarrilaren 14ko Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Azken ehun urteotako pandemiarik handienean murgildurik gaude, eta zientzialarien eta mundu osoko estatuen ahalegin askoren ondoren lortu da Covid-19rako lehen txertoa onestea, Comirnaty txertoa. Espainiako Gobernuak guztira 11.850 dosi helarazi dizkio Nafarroako Foru Komunitateari, abenduaren 27an abiatu zen txertatze-kanpainari ekiteko.

Nola ari da Nafarroako Foru Komunitatea kudeatzen Covid-19ari aurre egiteko txertatze-estrategia?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 6an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, pentsioaren zenbatekoaren kalkulurako kotizazio-epea 25 urtetik 35era igotzeko proposamenari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, pentsioaren zenbatekoaren kalkulurako kotizazio-epea 25 urtetik 35era igotzeko proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero foru parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministro José Luis Escriváren bitartez, zenbait aldiz adierazi du lehentasunezkoa deritzola pentsioen birmoldatzea urgentziaz egiteari, etorkizunean bermatuta egon dadin sistemaren oreka finantzarioa.

Alabaina, Escrivá ministroak iragarri duenez aurki aurkeztuko den birmoldaketan jaso litekeen

proposamen batek, Toledoko Hitzarmeneko gomendio-txostenean ez agertzeaz gain, murrizketa nabarmena eragin lezake etorkizuneko pentsioen batez besteko zenbatekoan.

Escrivá ministroak proposatuko luke 25 urtetik 35era igotzea pentsioen zenbatekoaren kalkulurako kotizazio-epa.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du pentsioen zenbatekoaren kalkulurako kotizazio-epa 25 urtetik 35era igotzeko proposamenaz?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-estrategiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Pasa den abenduaren 27an ekin zitzaion, Iruñeko "El Vergel" egoitzan, Covid-19aren aurkako Nafarroako txertatze-kanpainari.

Nafarroako Gobernuak hasiera batean jakinarazi zuen bezala, txertatze-lanak Nafarroako zentro soziosanitario publiko nahiz pribatuak izanen ditu jomuga nagusi, harik eta, urtarril-otsailean, zentro horietako egoiliarrek eta bertako profesionalak osatzen duten 13.000 pertsonako multzoa txertatu arte.

Prensa bidez jakiten ari garenez, jadanik aplikatua izaten ari denaz bestelako txerto batzuk ere badaude osasun-agintarien baimena jasotzeko prozesuan, eta aurreikusteko modukoa da gurera datozen aste edo hilabeteetan zehar iritsiko direla.

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak zer egutegi eta txertatze-estrategia aurreikusten ditu Covid-19aren aurkako txertatzea unibertsalizatu eta talde-immunitatea lortzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, elkarlaneko etxebizitzaren proiektuei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, elkarlaneko etxebizitzaren proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

2020ko azaroaren 25ean, zenbait erakunderen ordezkariak batek azalpenak eman zituen elkarlaneko etxebizitzak direla-eta Nafarroan abian diren proiektu batzuei buruz. Bilkura horretan, Nafarroako Gobernuari eskaera zehatz batzuk egin zitzaizkion, proiektu horiek aurrera eraman ahal izatekoak.

Horregatik, jakin nahi genuke ea Departamentuak baiezko erantzuna emanen ote dien egin ziren eskaera zehatzei, eta zer neurri hartuko dituen horrelako etxebizitzaren garapena errazteko.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Nafarroako CO₂ emisioei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako CO₂ emisioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarreko hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan. Galdera honek 10-20/POR 340 ordeztzen du.

“CO₂ emisioak, autonomia-erkidegokoa, 1990-2019” txostenak ernarazi egin behar gaitu, bere konklusioen artean jasotzen baitu ezen Nafarroa, beste bi autonomia-erkidegorekin batera, 2018-2019 epean CO₂ emisioak gehien areagotu zituzten autonomia-erkidegoen taldean dagoela.

Zer politika publiko gauzatuko ditu Nafarroako Gobernuak, datu horiek hobetze aldera?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, kulturgune eta kultur jardueretako COVIDaren aurkako neurrien funtzionamenduari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, kulturgune eta kultur jardueretako COVIDaren aurkako neurrien funtzionamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kulturgune eta kultur jardueretako COVIDaren aurkako neurriei buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi luke:

– Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak horien funtzionamenduari buruz, eta zer konklusio lortu ahal izan dira jarduera horietako COVID-kutsatzeari buruz?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola bermatuko du txertoen eskuratzea ekitatezkoa izanen dela, eta lehentasuna emanen zaiela txirotasun eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, batez ere etxebizitza-egoera prekariora dutenei? Aldi berean, zer ekintza zehatz egiteko asmoa dago, txertoa begi onez ikusten ez duten pertsonak edo kolektiboak txerta daitezen sustatzeko?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko

Galdera, Nafarroari emandako txerto-dosiak masiboki eta berehala txertatzeko operatiboari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroari emandako txerto-dosiak masiboki eta berehala txertatzeko operatiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zenuten prestatuta Nafarroari emandako txerto-dosiak masiboki eta berehala txertatzeko operatiboa?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen 2019ko eta 2020ko deialdiei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen 2019ko eta 2020ko deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan daude Nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen 2019ko eta 2020ko deialdiak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia aurreratzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia aurreratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Zergatik aurreratu da Nafarroako Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia, 2020ko abenduaren 18ko 302/2020 Ebazpenean ezarritakoa?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, pandemia kontrolatzeko neurri berriak hartzeko irizpideei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, pandemia kontrolatzeko neurri berriak hartzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpide erabiltzen ari da Osasun Departamentua pandemia kontrolatzeko neurri berriak hartzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Foruzaingoaren lanaldiak eta ordainsariak arautzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren lanaldiak eta ordainsariak arautzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ondorio ditu Foruzaingoko kideentzat Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota izanak Nafarroako Gobernuak Foru Poliziaren lanaldiak eta ordainsariak arautzen zituen Foru Dekretua baliogabetzen zuen 2018ko ekaineko epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren herritarren arreta-mailari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren herritarren arreta-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez ditu berreskuratu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak herritarrentzako konfinatu aurretiko arreta-mailak hainbat administrazio-zerbitzutan, horrekin kalte argia eraginez herritarrei eta atzerapen onartezina espediente ugariren izapidetzeari?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Foru Komunitatean haztegitzarrak instalatzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foru Komunitatean haztegitzarrak instalatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urtarrilaren 14ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Jakin dugu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak partzialki baietsi duela Odietako abeltzaintza- enpresa batek aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Enpresak errekurtso hori aurkeztu zuen bere instalazioak handitzeko (7.200 behi hartu ahal izateko) ingurumen-baimen berria ukatu zion 2018ko ebazpenaren aurka.

Noiz aurreikusten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzea, tamaina horietako instalazioak Foru Komunitatean kokatzea saihesteko beharrezkoa den segurtasun juridikoa lortzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Osasun Departamentuak kutsatzeak geldiarazteko ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak kutsatzeak geldiarazteko ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Publikoko eta Laneko Institutuaren abenduaren 28tik urtarrilaren 3ra bitarteko asteko txosten epidemiologikoan ikusten da parametro guztiek okerrera egin dutela. Zazpi egun horietan 810 kasu baieztatu ziren, aurreko astean baino % 34 gehiago. Kutsatze horiek oso modu nabarmenean biltzen dira 15 eta 34 urte arteko biztanleengan, adin-tarte horretan bikoiztu egin baitira kasuak. Kolektibo horren zati handi bat/gehiengoa hezkuntza- eta lan-jarduerara itzuliko da urte amaierako oporraldia amaitzean, eta COVID-19aren transmisioaren hazkunde-bektore garrantzitsu bihur daiteke.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Zer neurri ezarriko ditu Osasun Kontseilaritzak Nafarroan kutsatzeen hazkundea geldiarazteko, kontuan hartuta biztanleria horren garrantzia, eta zer epetan ezarriko dira neurri horiek?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreari zuzendua, eta heldu den osteguneko, 2021eko urtarrilaren 14ko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin eskatzen du.

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak COVID-19aren aurkako txertatze-prozesua ahalik eta zabalena, arinena eta bidezkoena izan dadin?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Gobernuak 2021erako aurreikustsen dituen negoziazio eta akordioei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gobernuak 2021erako aurreikustsen dituen negoziazio eta akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatzen duen honako galdera hau aurkeztu du:

sun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den urtarrilaren 14ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urte berriarekin hasiko den ikastaro politikoa-ren erronka nagusia COVIDaren krisia eta haren ondorioak gainditzea da, baina Nafarroan, horretaz gainera, badira presa handikoak diren beste gai batzuk, Foru Gobernuak Gobernu zentralarekin duen harremanari dagozkionak.

Zehazki, Geroa Baik hiru aipatu nahi ditu: egiteke dauden transferentzien egoera, Konstituzio Auzitegira bidalitako lege batzuen inguruko auzia edo Hitzarmen Ekonomikoaren 2020-2024 bosturtekoaren beharrezko eguneratzea.

Zer negoziazio eta akordio aurreikusten ditu Gobernuak lehendakariak 2021erako?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, 2021erako moduluak kentzearekin ados ez daudela dioten autonomoen eskaerei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2021erako moduluak kentzearekin ados ez daudela dioten autonomoen eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Aintzat hartuko al dituzu Nafarroako autonomoen egindako eskaerak, zeinetan adierazten baitute ez daudela ados 2021erako moduluak kentzearekin?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Euskarabideak D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina aurten ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Euskarabideak D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina aurten ez egiteko arrazoiei buruzkoa, Osoko Bilkuran izapidetu

dadin. Galdera 2020ko irailaren 22ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00266).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruz-

koa zen, eta 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ze (10-20/POR-00224).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familiarilerei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familia-

bilerei buruzkoa zen, eta 2020ko azaroaren 17ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00380).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordain-sariak hobetzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordain-

sariak hobetzeari buruzkoa zen, eta 2020ko urriaren 20ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00326).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, “Suspertu Plana. Desgaitasuna duten pertsonen zentroyen kudeaketa” izeneko 920005 93100 2600 231B05 partidaren zenbatekoa 2021eko aurrekontuetan murrizteko arrazoiei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera “Suspertu Plana. Desgaitasuna duten pertsonen zentroyen kudeaketa” izeneko 920005 93100 2600 231B05 partidaren

zenbatekoa 2021eko aurrekontuetan murrizteko arrazoiei buruzkoa zen, eta 2020ko abenduaren 18ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00423).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

